

KOSTUEN EGITURA



Edozein enpresa bezala, gurea ere kostuak ditu, finkoak zein aldakorrak. Dokumentu honetan horiek kontuan hartuko ditugu, aurrekontua egin ahal izateko. Hori esker, erabakiak hartu ahalko ditugu lehentasunaren arabera.

Hasteko, udalari zerbitzu bat emango diogunez gero, udalak alokairu bat alokatu digu prezio merkeago batean. Hori esker, jende gehiago gai izango da zerbitzua ezagutzeko.

Horrez gain, gure gastu orokorrak hauek dira:

<i>KOSTU FINKOAK</i>	<i>KOSTU ALDAKORRAK</i>
<ul style="list-style-type: none">• Alokairua• Langileen soldata	<ul style="list-style-type: none">• Argindarra• Ura• Marketing kanpainak (publizitatea) eta kolaborazioa• Materiala

Funtsezko baliabideen dokumentuan argitu dugun bezala, guk geuk enpresaren langile gara, hau da, kostuak minimizatzen saiatzen gara. 4 pertsona gara, eta bakoitzak zeregin hauetako bat du:

- Dinamizatzailea + sare sozialak eta webgunea
- Kirol jardueretarako irakasleak (2 daude)
- Administrazioa eta finantzen ardura duena

Soldatei dagokienez, hasieran baxuak izatea onartuko dugu, denbora aurrera egin ahala aurreikusten dugulako etekinak maximizatuko ditugula eta gehiago ordaintzeko gai izango garela.

Hala ere, enpresa desberdinak kontratatuko ditugu garbiketa eta teknologia elementuen mantenimendua egiteko.